

# Nola ezarri kalitatearen adierazle onak

(Alejandro Campo)

## Aurregogoetak

Onak diren profesionalak bere jarduera profesionalaren bitartez lortzen duten arrakastaren ebidentziak bilatzen dituzte etengabe. Honelako galderak egiten dira: zer moduz goaz? Zer lortu nahi dugun argi izatea eskatzen du galderak (helburuak), baita ere ea nola jakingo dugun helburuak lortzen goazen ala ez (arrakasta adierazleak, lorpen adierazleak, kalitate adierazleak).

## Kalitate adierazleen aukeraketa eta erabilera

Balorazio guztiak dute nolabaiteko konparaketa bat. Modu esplizitu edo inplizitu batean, edozein jardunen jarraipen prozesuan jasotzen den informazioak, jarduna baloratzeko aukera ematen duten irizpideak jasotzen ditu, baita arrakasta edo porrota adieraziko duten informazio motak desberdinak ere. Hau da kalitatearen adierazleen munduan.

*"Kalitate, arrakasta, lorpen adierazle bat da programa, jardun edo antolatze-proposamen baten lorpenaren baloraketa gidatzen duen egiaztapen bat. Era berean, xedeak finkatzen eta helburuak argitzen laguntzen du. Kalitate adierazle batzuentzat egiaztapen labur bat nahikoa izaten da. Beste batzuk, baieztapen zehatzagoa eskatzen dute eta prozesu osagarriak jasoko dituzte sakontasun, kalitate edo/eta arlo edo programa zehatz batetan inplikatzeko sakontasun neurriak eskeiniz".*

Kalitate adierazleen aukeraketa eta erabilera ez du zergatik izanik zeregin tekniko konplexu bat, baina hezkuntza-jarduera batzuen ebaluazio prozesuak ezaguera zehatz batzuk eskatzen dituzte, bai aplikazio mailan, bai interpretazio mailan.

|  |   |
|--|---|
| <b>1. galdera: ¿Zer da lortu nahi dena?</b>  | <b>2. galdera: ¿Zeintzuk dira dagozkion arrakasta adierazleak?</b>  |
| Hau da baloratu eta eztabaidatu beharreko lehen galdera. Edozein programa zein antolatze-proposamenen jarduera arloak identifikatu behar dira eta informazio egokia jasotzen lagunduko diguten galderak ere. | Jarduera arloak identifikatu ondoren, prozesuak, jokabideak, ekintzak, ... identifikatu behar dira. Hauek, arlo bakoitzeko arrakasta ziurtatzea ahalbideratuko digute.<br><br>Garrantzitsua da marko sistematiko bat garatzea, jarduera arlo adierazgarri guztiak eta horietako bakoitzari dagozkion adierazleak azaldu daitezen (ikus 1 ekintza)   |
| <b>3. galdera: ¿Zein informazio jaso eta prozesatu?</b>  | <b>4. galdera: ¿Zerekin konparatu ditzazkegu gure emaitzak modu baliagarri batean?</b>  |
| Datu bilketa eta prozesaketak arrakasta irizpideak eta kalitate adierazleak gehiago zehaztea eska dezake. Eskura ditugun baliabideak anitzak dira: galdeketak, elkarrizketak, behaketa, ...                  | Aurreko prozesu guztia konparaketa ikuspegi batean jarri behar da. Hobekuntza estandar batzuekiko neurtzen da beti, eta balio-judizio bat egiten uzten digute. Hiru motatako estandarrak daude:<br><br>↳ <u>Konparazio Adierazleak</u> ¿nola egiten dugu antzeko beste programa batekiko edo beste ikastetxe batekiko?<br><br>↳ <u>Aurrerapen Adierazleak</u> ¿zein bide egin dugu?<br><br>↳ <u>Helburu Adierazleak</u> ¿esan genuena lortzen ari gara? |

| 5. galdera: ¿Zein beste informazio mota behar dugu emaitzak kontestualizatzeko ?  | 6. galdera: ¿Zein ondorio atera ditzakegu?   |
|---|--|
| <p>Konparazioa baliagarria den galdetu behar gara. Beste testuinguru bateko antzeko programa batek ez du gurearekin zerikusirik zertan izanik . Edonola ere, Hezkuntzan sarri esaten da lorpenak ezin direla neurtu egoerak bakarrik direla argudiatuz. Kurioso da, baina espezifikotasun hori aitzakia bezala jartzen da jardun pobreetan. Arazo hauek konpontzeko estrategia batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>↳ Diferentziak azaldu ditzaken teknika estatistikoak erabili.</li> <li>↳ Beste konparaketa iturri batzuk bilatu. Aurrerapen forman neurtu, ez termino konparatiboetan.</li> <li>↳ Arrakastaren dimentsio guztiak jasoko dituen informazio desberdina bilatu.</li> </ul> | <p>Hobetze prozesuen eta kalitate adierazleen arteko loturak egin litezke. Hemen modu batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>↳ Jarduera arlo bakoitza galdera batekin edo gehiagorekin lotuz.</li> <li>↳ Jarduera arlo bakoitzerako lorpen irizpideak identifikatuz.</li> <li>↳ Jaso eta aztertu beharreko informazioa erabakiz, aukeratutako irizpideekin ebidentzia bezala balio dezaten.</li> <li>↳ Jarduna zein oinarriren arabera baloratuko den erabakiz.</li> <li>↳ Jardun-maila ulertzerakoan lagungarri izan daitezkeen zirkunstantzi partikularrak kontutan hartuz.</li> </ul> |

### Kalitate adierazleen inguruan (prozesua)

- ↳ Sinpleak eta argiak izan daitezela.
- ↳ Eztabaidatu ondoren ezarriak izan daitezela.
- ↳ Ezartzerakoan, programak martxan jartzeko ardura dutenak inplikatu daitezela.
- ↳ Hobetze eta garatze asmoekin erabili daitezela.
- ↳ Etengabeko errebisio prozesu batean egon daitezela.

### Xedea

Ekintza, programa edo antolatze-proposamen bati ezarri behar zaizkion kalitate adierazleak ebaluazio prozesu baten atal bat bezala ulertzen laguntzea partaideei.

### Testuingurua

Programa edo ekintza hezitzaile bat planifikatzen duen talde bat, edo zehatzago, nola ebaluatuko den ezarri behar duen talde bat.

### Materialak

Kartoi mehe handiak eta errotuladoreak.

### Prozedura

1. Ondorengo galderari erantzun azkarrak botatzen hasten da taldea (brainstorming):

*"Ikus daitezkeen zein elementuk adieraziko digute ekintzak arrakasta izan duela?"*

Testuinguru honetan, "ikus daitezkeen" hitzaren esanahia da behaketa, elkarrizketa, dokumentuen azterketa, prozesu estatistikoak, ... bitartez posible dela informazio adierazgarria lortzea. Adierazgarritasunak kuantitatiboak izan daitezke (azterketetako emaitzak, kostuak, asistentzia edo hutsegite indizeak, e.a.) edo kualitatiboak (irakasleen zein ikasleen pertzepzioak, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuekiko pertzepzioak). Ahalik eta zerrenda luzeena osatzen saiatu. Idatzi.

2. Taldeak zerrendaren inguruan eztabaidatuko du eta errepikatzen direnak kenduko ditu. Argi ez dauden baieztapenak argituko ditu.

3. Gainontzeko adierazleak ekintza arloen inguruan sailkatuko ditu, bakoitzari izen egoki bate manez.
4. Egoera errebisatu:

*¿Ekintza arloak programa edo ekintza hezitzaileko dimentsio garrantzitsuenekin lotuta daude? Aspektu garrantzitsuren bat falta da (errekurtsoak, erabiltzailearen asetze-maila, e.a.)?  
Arlo bakoitzak nahiko adierazle kopurua du?*

### Beste aurre-gogoeta batzuk

Ekintza hau egiterakoan garrantzitsua da brainstorming teknikaren erregelak modu zorrotzean jarraitzea:

- ✎ Ez juzgatu. Ideia guztiak idazten dira komentariarik egin gabe.
- ✎ Autokontrolik ez egin. Balio ez duten ideiak geroago baztertu daitezke.
- ✎ Zenbat eta gehiago hobeto. Hasieran kantitateak du garrantzia.
- ✎ Erlazioak egin. Ideiak konbinatu berriak sortzeko.

### Kalitate adierazleak kokatzeko txantiloia

Beheko koadrotxoak erabiliz, programa edo ekintza hezitzaile bat zuen interesekotzat jo. Banaka edo taldeka kalitate adierazle multzo bat ezarri (arrakastakoa edo lorpenekoa).

|           | KUANTITATIBOAK | KUALITATIBOAK |
|-----------|----------------|---------------|
| Sarrerak  |                |               |
| Prozesuak |                |               |
| Emaitzak  |                |               |